

Artearen Historia Irakasteko Oinarri Metodologikoak

1. Oinarrizko datuak

- **Modulua:** Espezifikoa II
- **Izaera:** Hautazkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Argibel Euba

2. Ikasgaiaren azalpena eta testuingurua

Ikasgai honetan Artearen Historiaren irakaskuntzarako oinarrizko irizpide, tresna eta estrategiak landuko ditugu. Artea gizartearen eta kulturaren oinarrizko elementu gisa ulertuta, haren irakaskuntza esanguratsua bilatuko dugu, ikuspuntu historikoa oinarri harturik.

Jakintzagai honen metodologian eta didaktikan barneratuko gara. Adierazpide artistiko desberdinak, artearekiko hurbilketa teoriko-metodologikoak, irizpide pedagogikoak eta ondare artistiko eta kulturala landuko ditugu, baita gaiari lotutako material didaktikoak aztertu eta sortu ere.

Historiaren ulermen osatuagoa ahalbidetzea, adierazpide artistikoekiko hurbilketa analitikoa indartzea eta sormenaren nahiz ondarearen balioespena sustatzea izango dugu helburu.

3. Konpetentziak

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan Artearen Historiarako indarrean dauden curriculum-proposamenak ezagutzea.
- Artearen Historiaren eta haren adierazpide materialen balioa azpimarratzeko gai izatea, Humanitateen diziiplina-esparruan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara eta Batxilergora bideratuta.
- Diziplinaren oinarri kontzeptualak, zientifikoak eta metodologikoak eskuratzea, IKTen eta teknologia berrien erabilerari lotutako aurrerapenak txertatuz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculum-educien eskari espezifikoki erantzuna emateko.
- Artearen Historiaren dimentsio historiko-kulturala eta estetiko-formala eta haren berezko kode bisualak ulertzeko gai izatea, egungo kulturaren analisirako, gogoeta kritikorako eta ulermenerako beharrezko tresna gisa.

- Gai izatea Artearen Historia ikaskuntza autonomo eta kritikorako nahiz ezagutza berrien kudeaketarako oinarritzko tresna gisa aitortzeko, eta eremu profesionalean nahiz eguneroko bizitzan haren aplikagarritasuna onartzeko.

4. Ikas-emaitzak

1. Ikasleriak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan Artearen Historiari lotutako jakintzagaien curriculum-edukiak eta haien irakaskuntza eta ikaskuntzarako ezagutza kontzeptual eta didaktikoak ezagutzen ditu.
2. Ikasleriak badaki informazioa bilatzen, lortzen, prozesatzen eta komunikatzen, hura ezagutza bihurtzen eta Bigarren Hezkuntzako curriculum-testuinguruan Artearen Historiaren irakaskuntza eta ikaskuntzarako prozesuetan aplikatzen, horretarako ikasleen aniztasunari egokitutako metodologia didaktikoak garatuz eta aplikatuz.
3. Ikasleriak badaki eskuratutako ezagutzak testuinguru berrietan arazoak ebazteko aplikatzen, jakintza horren zeharkakotasuna indartuz eta giza eskubideekiko, berdintasunarekiko, generoarekiko, kultura-aniztasunarekiko eta eleaniztasunarekiko jarrera proaktiboak sortuz.
4. Ikasleriak badaki bere ondorioak eta horien oinarrian dauden ezagutza eta arrazoiak argiro komunikatzen, espezialitatearen arloari dagokion berezko lengoaia espezifiko erabiliz.

5. Edukiak

1. Artearen Historiaren oinarri kontzeptuala, zientifikoa eta metodologikoa
2. Eskultura, pintura eta dekorazio-arteak aztertzeako oinarri metodologikoak.
3. Arkitektura eta Hirigintza aztertzeako oinarri metodologikoak.
4. Ikusizko sistema garaikideak aztertzeako proposamen metodologikoa.
5. Artearen Historiaren kudeaketa kultural eta profesionalera hurbiltzea: museoak, galeriak, azokak, aisia eta turismoa, fundazioak, enkanteak, bildumak eta zaharberritzea.
6. Artearen Historia irakasteko baliabide didaktikoak.

6. Metodologia

Ikasgaiak **ikaskuntza autonomo eta esanguratsua** bultzatuko du **metodologia aktibo** baten bidez, eta UEUren online ikas-irakaskuntzarako eredu pedagogikoan oinarrituko da. Alderdi teorikoa eta praktikoa uztartuko ditu, arreta ikaskuntza-prozesuan eta konpetentzietan jartzeko.

7. Tutoretza

Tutoretza-saioen helburua ikasgaiaren inguruko zalantzak argitzea izango da. Bideo-bilera sinkronoak izango dira, eta, ikasgaiak irauten duen bitartean, bi egingo dira gutxienez. Saioen egunak eta ordutegia irakasleak proposatuko ditu Ikasgela Birtualean.

8. Ebaluazioa

Ikasgaien ebaluazioa jarraitua eta hezitzailea izango da. Kalifikazioetarako, gai bakoitzeko zereginak, azken produktua eta parte-hartzea baloratuko dira. Ikasketa-prozesuan zehar eginiko hausnarketa pertsonalei eta talde-dinamikan eginiko ekarpenei ere garrantzia emango zaie.

9. Bibliografia

Artearen Historia orokorra

Checa Cremades, Fernando; García Felguera, María de los Santos eta Morán Turina, José Miguel (1980): *Guía para el estudio de la historia del arte*, Cátedra, Madril.

Freixa, Mireia *et al.* (1990): *Introducción a la historia del arte*, Barcanova, Bartzelona.

Mendizabal Ugalde, Juan Ignacio (2007): *Artearen Historia: 2. Batxilergoa*, Erein, Donostia.

Triadó Tur, Joan Ramon; Pendás García, M. eta Triadó Subirana, X. (2016): *Artearen historia*, Vicens Vives, Bartzelona.

Teoria, metodologia, analisia

Fernández Arenas, José (1990): *Teoría y Metodología de la Historia del Arte* (2. edizioa), Anthropos, Bartzelona.

Insa Rufach, Joan Jesús; Peirón Pena, María Llum eta Solà Toà, Angelina (1991): *Método para la lectura de obras de arte: Estudio de paradigmas desde la prehistoria al romanticismo*, Bruño, Madril.

Plazaola, Juan (2003): *Modelos y teorías de la historia del arte*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia.

Entseguak eta analisi kritikoak

Benjamin, Walter (2017): *La obra de arte en la era de su reproducibilidad técnica*, La Moderna, Galisteo.

Berger, John (2008): *Ways of seeing*, Penguin, Londres.

Méndez, Lourdes (2009): *Antropología del campo artístico: Del arte primitivo [...] al contemporáneo*, Síntesis, Madril.

Hiztegiak

Aguilera Cerni, Vicente (1996): *Arte modernoaren hiztegia*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao.

Faerna, José María eta Gómez Cedillo, Adolfo (2015): *Arteari buruzko oinarrizko kontzeptuak*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao.

Lajo, Rosina eta Surroca, José (2010): *Artearen lexikoa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao.

Artearen Historiaren didaktika

Álvarez de la Prada, Gloria (1996): «Cómo elaborar unidades didácticas de Historia del Arte», *Íber*, 8, 69-78.

Ávila Ruiz, Rosa María (2001): *Historia del arte, enseñanza y profesores*, Díada, Sevilla.

Trepat, Cristòfol A. (2003): *El taller de la mirada: Una didáctica de la història de l'art*, Pagès, Lleida.

Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Masterra (online)
<https://www.goi-institutua.eus>

 : goimailako
: online
: institutua

Trepat, Cristòfol A. (2011): «Didáctica de la historia del arte», in Joan Prats (ed.), *Didáctica de la Geografía y la Historia*, Secretaría General Técnica, Madril, 89-112.

Trepat, Cristófol A. (2006): «Las pruebas de corrección objetiva en la enseñanza y aprendizaje de la historia del arte», *Iber*, 49, 57-73.